

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Jaien lekukoa Andoaingo beste auzoetara igaro da

Unean uneko euri zaparradak alde batera utzita, Kaletxikiko San Pedro jaiak bikain igaro dira / 8-10

Ainhoa Jauregi Urnietako mendi lasterkaria

Podiumeko koska garaienera itzultzeak hauspoa eman dio: "Arbizun lortutako garaipenak piska bat gehiago estutzeko motibazioa eman dit" / 12-13



Mikel Iturria Euskadi-Muriaseko txirrundulariak Sierra Nevada egonaldia egingo du, Espainiako Vuelta jomugan / 11

Magale Presentacion de Maria eta Salesiar ikastetxearen elkarlanaren fruitua da / 3



Andoni Urbistondo kazetariak Frantziako Tourraren eguneroko analisia egingo du Aiurri.eus gunean / 16

San Fermin jaiak hastear direnean, musika eginez jaiak gozatu ohi du Ibañez musikariak / 5



Etorkizunera begira egindako apustua

Kristau Eskoletan ildo bereko ikastetxeak elkar lotu nahi dituzte. Prozesu horretan gauzatu da Urnietan Magale ikastetxe berriaren sorrera, Presentacion de Maria eta Salesiar ikastetxearen baturatik eratorri dena



Magalaren aurkezpen ekitaldia joan zen astean izan zen. Zutik Mikel Ormazabal, Mikel Pagola, Bakarne Ezizola eta Maria Jesus Nuñez. Eserita Agustin Urretabizkaia, Nekane Kortajarena, Jose Luis Pinedo eta Martin Iztueta. AIURRI



Zorionak

MIKEL PAGOLA URNIETAKO ALKATEA

Zorionak eman nahi dizkiet Presentacion de Mariari eta Salesiar ikastetxeari. Ikastetxeko familia osatzen dugun guztioi –ikasle, guraso, irakasle, monja, salestar– gaurkoa zorionak emateko eguna da.

Urnietako hezkuntza komunitatean bi proiektu ditugu. Biak beharrezkoak, biak osagarriak, Urnietako neskato eta mutiko guztiek kalitatezko hezkuntza izan dezaten.

Presentacion de Maria eta Salesiarrak batzean Magale proiektuarekin bere etorkizuna bermatuta geratzen da. Beraz, herri ikuspegitik ikusita egun zoriontsua da.



Konfiantzaren pedagogia

NEREA LIZARTZA IRAKASLEA

Magale sortu da. Hutsetik sortzen ez denez, jatorrizko bi proiektuen indarguneak sendotuko ditu Magalek. Familiak eta haien seme-alabak izango ditu ikaskuntza prozesuaren erdigunean. Konfiantzaren pedagogia da Magalek duen ardatz eta oinarrietako bat. Gizarte honek taldean modu eraginkorrean lanean dakiten pertsonak behar ditu. Arazo egoeran oinarritutako proiektuekin egiten dugu lan.

Euskara, gaztelera eta ingelera dauzkagu jo puntuan. Beharrezkoa ikusten dugu emozionalki azkarrak eta helduak diren haurrak eta gazteak hezitzea. Gizarte aldakor honetan gerta daitezkeen egoerei irmo aurre egiteko. Eta hori guztia aro digitalean murgilduta, unean uneko puntako behar digitalei erantzunez. Gehiago aipa badaitezke ere, ildo pedagogikoan horietatik dira nagusienak.



Erreferente Euskadin

MIKEL ORMAZABAL KRISTAU ESKOLAKO ZUZENDARIA

Nire lehenengo hitza zorionak da. Gaur Urnietan gertatzen ari dena beste hainbat herrietan ere gertatzea nahiko genukeelako. Aspaldi amestutako proiektua da. Pozik eta harro sentitzeko unea da, beraz, gaurkoa.

Zergatik da egun pozgarria Kristau Eskolarentzat? Salesiarrak naiz, baina momentu honetan Kristau Eskolaren inguruan nabil. Kristau Eskola zer den aurkeztu nahi nuke. Euskadi osoan 136 hezkuntza gune ditugu, sistema

kontzertatuaren %60a osatuz. Hezkuntza sistema osoa kontutan hartuz, %30a ordezkatzeko dugu.

Presentacion de Maria eta Salesiar ikastetxea Kristau Eskolen baitan daude, kristau humanismoa ideia nagusi delako bietan. Lau urte dira Kristau Eskolak abiatu zirenetik, Euskadiko demografia mapa aztertu eta gero.

Ikei enpresak bere garaian azterketa egin zuen, eta horren

baitan 2030. urtera bitarte jaiatsiera demografikoa %35-40koa izango da. Hezkuntza gune guztietan kezka handia dago une honetan.

Eskola mapa egitasmoarekin erakundeen arteko jarduerak burutu ditugu, hiru helburu nagusiekin:

- Hezkuntza egitasmoak biziberritu eta indartu, eta ez ahuldu.
- Humanismo kristauaren agerpena egin, eta ez galdu.
- Urnietan egin den moduko ekintzak aurrera eraman. Gaurkoa ez da helmuga, hasiera baizik.



Ilusioz beteriko erronka

AGUSTIN URRETABIZKAIA MAGALEKO KOORDINATZAILEA

Niretzat ohore handia da proiektu honen talde bultzatzailearen koordinatzailea izatea. Magale hitzak ondo definitzen gaitu. Hitz horren esanahiaren atzean goxotasuna, gertutasuna, familia giroa... daude. Haurrak gurasoen magalean zorianitsu eta seguru sentitzen diren moduan, zuen seme-alabak ikastetxean horrela sentitzea nahi dugu. Pertsona konprometitua eta zorianitsuak izateko laguntza eta jarraipena gure aldetik jasoaz.

Alde batetik, Presentacion de Maria eta salestarren elkarteek erakutsi duten konprometua proiektua bultzatu eta aurrera eramateko. Bestetik, proiektua gauzatzen egongo garen irakasle eta langileak daude.

Giza eta kristau baloreak bizitzeko aukera emango dien sormen giro positiboan murgilduko dira gure ikasleak. Magale guztiontzako ilusioz beteriko erronka izango da.



FRANTZIAKO TOURRA
AIURRI.EUS | **@aiurri**



KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



ZABALIK

ANA CARRERE ANDOAINGO ALKATEA

Eskerrik asko Andoain!

Udako solstizioarekin su majikoa piztutzeko zain egoten gara. Ohitura zaharrak dioten bezala, urteko gauza txarrak sutara bota eta hurrengo urteko desio berriak eskatzeko su majikoa pizten dugu. Une erakargarriak dira, herria bertan elkartzen da. Dantzatzen diogu. Kantatzen diogu. Suak duen erakargarritasunari so egoten gara. Hantxe bidaltzen dizkiogu geure nahiak, betetzeko esperoan.

Egun horretan, sua piztu baino lehen, bere indarra eta berotasuna jaso baino lehen, erritual paganotik datozen ohiturei errespetua erakusteko, udalbatzako ordezkariok dantza egiten dugu. Urduritasun uneak izaten dira; herriaren aurrean, udal ordezkariok aukeratu gaituen herriari gure errespetua erakusten diogu.

Alkatearen aginte makila eskutan, plaza erdi-erdian, bakarrik, txistuaren doinua soilik entzuten dela, babesgabatasun puntuarekin aitortu behar dut, hortxe, guztien aurrean, herriari dantzatzen dio alkateak. Andoaindar guzti-guztiei errespetua aitortzen dion momentua izaten da. Urtean behin egoera aldatzen da, behintzat.

Aurten niretzat oso berezia zen. Seguraski, azkeneko aldia izango baizen plazan, andoaindarren aurrean dantza egingo nuena. Akaso, beste urteetan baino urduritasun gutxiagorekin nengo; esperientzia izango da. Halere, beti bezala, seriotasun eta errespetu osoarekin.

Eta zoritxarra iritsi zitzaidan.

Nonbait, sua piztu gabe, ezin izan nuen haren indarra jaso. Aldiz, haren indar magikoaren faltan, herritarrena jaso dut. Zuen berotasuna. Zuen elkartasuna. Udal ordezkari guztiena. Udal langileena. Herritar ugarirena. Etengabea izan da. Benetan hunkigarria egin zait. Idazten ditudan hitz xume hauen bitartez, nire eskertza bidali nahi dizuet guztiei. Bihotz-bihotzetik.

www.aiurri.eus

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



• Iritzia
• Postontzia

SAREAN

"Zer dute halako amorrua izateko euskarari?"

ARGIA.EUS

Lurdes Mercero Lizarraga (Unanu, 1946).

"Askatasuna maite du Lurdes Mercero. Ezkuntzeko asmorik ez eta amak esan zion moja sartzeko. Mercero ordea, Elizarekin ere, lotura ahalik eta gutxien nahi zuen. Nafarroako Diputazioak, 1957 eta 1966 artean, diploma bana eta 50 eta 200 pezeta arteko diru sari bana eman zien euskaraz mintzo ziren 6.197 haurri. Horietako bat Unanuko Kaleko etxeko Lurdes da. 19 urterekin, Zaragozara joan zen batxilergoa eta irakasle-ikasketak egitera. Ondoren, Ekuadorrera egin zuen bidaia fraide kaputxinoen laguntzaile gisa, bertako indigenekin lan egiteko. Itzulitakoan Andoaingo Aita Larramendi

ikastolan irakasle lanean hasi eta han aritu da 32 urtez. Erretiroa hartutakoan unibertsitatera itzuli eta hamabi urteren ondoren han jarraitzen du, orain antropologia ikasten, euskaraz.

(...)

Orain, aldiz, ematen du saria baino gehiago zigorra eman behar dietela Nafarroan euskaraz dakitenei...

Gustatuko litzaidake Ana Beltrán [Nafarroako PPko lehendakaria] aurrean izatea, orain biok gauden bezala, eta esango niok: "Lasaitu zaitetz emakumea. Ez dizu lotsarik ematen esaten duzunak?". Emakume hori ez dago ondo, edo fundamentalista da, edo haluzinogenoren bat hartzen du. Ez dute zentzurik esaten dituen astakeriek!

Gure bizitza osoan jasan behar izan dugu kanpoko hizkuntza baten inposaketa. Odolez eta gerraz inposatu digute. Gure hizkuntza ez da gaztelania, baina oso ongi dago jakitea, ingelesa eta beste hizkuntzak bezala.

Emakume hori ez da ohartzen non dagoen, edo badaki eta probokatzeko egiten du. Baina ez probokatu horrenbeste herria! Zer nahi duzu, beste garai batzuetara itzuli? Zuek nonbait ondo bizi zineten, baina guk ez genuen batere ondo pasa. Kostako zaigu gure minak sendatzea. Esparza [Jose Javier Esparza, UPNko presidentea] gazteagoa da, baina ikusten zaio ez dagoela ondo, lo gutxi egiten duela.

Zer dute halako amorrua izateko euskarari?"

POSTONTZIA

Sinatutako gutunak argitaratzeko posta elektronikoak: andoain@aiurri.eus | urnieta@aiurri.eus



Aiurri eskuragarri:
Ebez ebeko harpidetza-sistema. Andoain urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.
Maketzaileak: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetak: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publicitate@aiurri.eus
Banatzaleak: Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: ERROITZ
ALJATUAK: ALJATUAK, nesteez, TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:
ANDOAINGO UDALA, Urnietako Udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:
EUSKO JAIERAREN GOBIERNO VASCO, Gipuzkoako Foru Aldundia

ZIURTAGIRIA: 2017 Bitkarn
BABESLEAK: AIURRIKO HARPIDEDUNAK ezinbestekoak dira.



PROTAGONISTA

“Sanferminetan aritzea Championsen parekoa da”

JEXUX IBAÑEZ "TXUPI" GORA KALETXIKI TXARANGA TALDEKO KIDEA

Xabier Lasa ANDOAIN

Jesus Ibañez Txupi-k ondotoxo daki zer den San Ferminetan musikari bezala murgiltzea. Usteak uste, musika jotzeaz batera parranda egitea oso lan nekeza dela dio.

Aurten Sanferminetara...

Bagoaz, bai! Festetako azken egunean, 14an, Gora Kaletxiki txarangarekin ibiliko gara, Jarauta kalean dagoen Napardi elkarteko jendearekin batera. Vermutaren ordua deitzen dioten ekitaldi horretan ibiliko gara, eguerdi partean. Gora Kaletxiki txarangarentzat lehenengo aldia da Sanferminetara joaten gara. Elkartetik gonbitea luzatu ziguten, eta hamaiketakoaren truk joango gara.

Egun berezia, beraz.

Txarangaren munduan dabilenarentzat, Donostiako Danborradan, Tolosako Inauterietan edo Sanferminetan jotzea, futboleko Championsa jokatzeko bezalakoa da. Alde horretatik,



Ibañez andoaindarra joan den Sanjuanetan herriko etxeetan. AIURRI

esan daiteke gure txarangarentzat egunik apartekoena izango dela jaioren egunetik hona.

Zuk zeuk, ordea, urteak daramatzazu San Fermin jaietan musikari lanetan.

Bai, azken urteetan Luciano Uribesalgo eta biok joan izan gara hara, lehen aipatutako elkarteak gonbidatuta; bera perkutsio kaxarekin eta ahotsarekin, eta neu esku-soinuarekin.

Sanferminak eta txaranga eskutik joan izan dira beti...

Sanferminak aipatu eta edonori txarangaren hotsa etorriko zaio gogora. Biak elkarrekin identifikatu izan dira beti.

Zezenak bezain beste?

Baietz esango nuke kasik-kasik. Zezenak festetatik kentzeko lehenbiziko hotsak entzun dira azken aldian, baina guk ez dugu horrelakorik ikusiko. Eta txarangekin, berdin-berdin. **Sanferminetan musikari bati geratzen al zaio parrandarako denborarik edo gogorik?** Igual jendeak pentsatuko du baietz, musikariok fama hori badugu. Baina bestelakoa da errealitatea. Erantzukizun handia izaten da jendetzaren aurrean jotzea, horrek errespetua eragiten dio musikari bati, eta ezin da edonola ibili.

Nola datorkizu uda, emanaldiei begira?

Txaranga gisa saioak izango ditugu hurrengo asteetan. Uztailearen 30ean Etxeberrieta auzora goaz, jaietako danborradari musika jartzeko. Villabonan, kontzertua emango dugu Santio egunean. Abuztuan, Amabirjin egunean, Sorzano (Errioxa) herriko jaietara goaz urteroko tradizioari jarraituz.

HAU ERE BADUGU!

Udako ordutegia Udal zerbitzuetan



Udalak andoain.eus gunean aditzera eman duenez, datorren uztailearen 30etik abuztuaren 15era Allurralde kiroldegia itxita egongo da. Dagoeneko itxita dagoena Arrate pilotalekua da, eraberritze lanetan murgildu baitira. Jon Zulueta Udal gobernu batzordeko bozeramaile eta behin behineko alkate denak, bidez bidez azaldu ditu Arrate pilotalekua eraberritzeko xehetasunak. 1.200.000 euroko aurrekontuarekin, Aldundiak herena finantzatu du.

Istripuaren albisteak oihartzun zabala



28 Kanala tokiko telebistak edota Aiurrik, sareen bitartez, joan zen astean Leonen hildako senar-emaztearen eta bizirik atera zen semearen inguruko informazio eguneratua zabaldu zuten. Leuneta, Urnieta eta Hernani aldeko txirrindulari elkarteak, gainera, parte hartze zuzena izan zuen Villabonako familiaren aldeko bizikleta martxan. Hernani eta Tolosa lotu zituzten, Facebook edota Twitter sare sozialetan oihartzun zabala lortuz.

DATUA

Jaiotza tasa beheruntz doa

Beheranzko joera luzarorako dela diote adituek, eta horrek gizarte mailako erakunde ezberdinen arreta piztu du. Pentsio sisteman, urrutira begira jarrita. Eta hezkuntzan, esaterako, epe erdira. Kezkaz bizi dute demografiaren joera negatiboa. 2030era bitarte matrikulatuko den ikasle kopurua %35-40 jaitsiko dela aurreikusten da. Arrazoi hori ez da bakarra, baina oso kontutan hartu dute Urnietako Presentacion de Maria eta Salesiar ikastetxeek, hezkuntza egitasmo bateratua abian jartzeko. Magale abian jarri dute, dagoenarekin eta etor daitekeenarekin zerbitzu bera edo hobea eskaini nahian.

GORA ETA BEHERA



Kexa agertzen duten hainbat bizilagunen kasua

Aurreko udan bezala, oraingoan ere agertu dira jaietan jaurtitzen diren suzirien aurkako kexak. Zoritxarrez, gainera, sare sozialetan egiten diren kritika negatiboek oihartzun zabalagoa izaten dute. Auzoetako jai batzordeetan ez dira ohikoan lankide ugari izaten eta elkarbizitzaren alde egiten duten lana ordainezina da. Txaloak merezi dituzte.



AIURRI

San Juan jaien osteko balorazio bilera

Baikor baloratu zituzten San Juan Jaiak, joan zen astelehenean egin zuten bileran. Bertan Udal ordezkariak, teknikariak eta elkarteetako ordezkariak parte hartu zuten. Hitzordu berean Garbiñe Agirre kultur teknikariaren agurra iragarri zen



Goikoplazan hitzordu ezberdinetan eta egun ezberdinetan ehunka lagun bildu dira. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Kultura arduradun eta teknikariak, udaltzainak, antolaketako lan taldeak eta kultur eragileak egin zuten balorazio bileran batik batik antolaketari lotutako kontuak izan zituzten hizpide, hurrengo urteetan hobetzeko asmoz. Goikoplazako espazioan makina bat ekitaldi antolatu beharrak eragiten dituen zailtasunak aztertu zituzten, hain

zuzen. Izan ere, ekitaldien kontzentrazioak, ordutegiak..., elementu asko ondo lotuta egotea eta eragile ezberdinen arteko koordinazio egokia eskatzen du, eta ez da erraza izaten beti asmatzea.

Aurtengoan lehenengo aldiz antolatu diren ekitaldien artean, Andoainen bizi diren munduko zenbait herrialdeetako herritarrekin egindako “Munduko za-

poreak” eta gazteei zuzendutako “Galdera jolasa: fitxa zu zeu zara” jolasa aipatu ziren, eta aldeko iritziak jaso zituzten bileran bildutakoen artean.

Garbiñe Agirrearen agurra

Bileraren amaieran, hamarkadetan Andoaingo kultur teknikaria izan den Garbiñe Agirre-ri erretiroa hartzeko tenorea iritsi zaiola jakinarazi zen.



Jaiak dantzaren erritmoan

UNAI BARRUTIA URKI DANTZA TALDEA

Iritsi dira San Juan jaiak beste urte batez. Iritsi eta baita pasa ere, laster batean; urteko egun luzeenak direnak atzean utziaz badator udako denboraldia. Denbora libre. Oporrak. Atsedena. Eguraldi ona ere bai, akaso.

Santakruzetatik hasi eta Sanjuanak pasa arte erritmo frenetikoan ibiltzen gara kultur talde desberdinetako kideak: entseguak, planifikazioa... Kanpotik ikusten ez den atzetiko lana. Denak ondo irten beharra dauka, eta horretarako orduak sartzea beste biderik ez dago.

Txupinazora arte festak hasten ez badira ere, txupinazoaren aurretik umeen amets on eta gaiztoetan agertzen diren erraldoi eta buruhandiak beraien atsedeen-lekutik atera eta bazterrak nahasteko prestatu genituen, atondu eta plazara gerturatuz, txupinazorako.

Aurten, Urki dantza taldeak hogeita hamar urte betetzen ditu, eta berak izan du txupinazoa botatzeko ardura. Halako aukera galtzen utzi ezin daitekeenez, zerbait berezia egin beharra genuen beraren parte garenok eta izandakoek, ospatzeko; herriari esker oneko agurra egin ondoren, aurtengo leuari jarraituz ingurutxo dantzatzeko gonbidapena zabaldu genuen, jendearen erantzun ona jasoz, mordoxka animatu baitzen, ia sartu ezineraino libratutako plazan.

Giroa ikusita erraldoiak Txulalari dantzatzeko jarri genituen ere, pentsa! Behin amaituta, baina, erraldoiek eta buruhandiek eguraldi ona probestu zuten hurrengo gozamenerako, ohiko ibilbidea burutu eta bueltan beraien lozorrora eramanez, dultzainen doinu eta maskuriaren zarata artean.

Urkiaren urteurrenari jarraiki, suaren aurrean dantzatzeaz gain, astelehenean emanaldi berezia eskaintzeko aukera izan genuen, Euskal Herriko txoko desberdinetako dantzez koloreztatuz jaiak; batek baino gehiagok pasatako urduritasunak izan zuen bueltan merezitako saria, jendearen harrera beroa ikusita.

Puntu horretaraino jada nekatuta iristen gara, ezin gezurrik esan, baina ahituta egonagatik ere, amaieraraino jarraitu behar da, nekeak ezin baitu gauzak erdi bidean uzteko arrazoia izan. Urtetan herrian galduta egondako zezensuzkoa festen metafora ederra dela iruditzen zait, festetan buru-belarri gauzak antolatzen ibiltzen diren eta garon horientzat: pixkanaka agortzen ari den karga emanagatik ere mailari tinko eusten zaio, eta jada amaiera gertu denean, azken kartutxoak besterik geratzen ez direnean, azken indarrak batu eta bukaera distiratsua bat ematen zaio gauari, datorren irteerarako gogoia berrituz ingurukoengan.

Orain, denbora librearekin zer egin asmatu behar egun hauetan lepo ibili garenok. Atsedean on batekin hasita, kartutxoak birkargatzeko.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Ahobizi eta Belarriprest

AINHOA AIERTZA ANDOINGO EUSKARALDIA

Andoingo euskaraldiaren batzordeak egindako lehen egitasmoa hamaikakoaren aurkezpena izan da. Eguraldia lagun ez izan arren, herriko elkarte eta norbanako askoren babesarekin aurkeztu da herriko euskaraldiaren enbaxadore izango den hamaikakoa. Hurrengo egitasmoa San Juan jaietan burutu da. Ekainaren 23an eta 24an herriko taldeei euskaraz aritzeko eta Euskaraldiarekin bat egiteko proposamena egin zaie, eta arrazoi horregatik, euren saioetan Ahobizi edo Belarriprest pegatinak jantzi eta euskaraz aritu dira. Horretaz gain, informazio mahaia jarri eta azaroaren 23tik abenduaren 3a bitartean parte hartu nahi dutenek izena emateko aukera ere izan dute.

Herritarren erantzunarekin oso gustura gaude. Informazio bila, izena eman dutenen eta asteburuan euskaraz aritzeko konpromisoa agertu dutenekin oso eskertuta gaude. Horren adibide dira, 'andoaindarra euskaraz' facebookean dauden herriko taldeen argazkiak: banda, Olagain txistulari taldea, musika eskolako helduen abesbatza, kantukalejira, Maizorri txalapartariak, Punttuka bertso eskola, Pilota eskola, auzoetako jai batzordeak, Zumeatarra elkarte, Axeri dantza, udal korporazioa, txirindularitza eskola, Buruhandi eta erraldoiak, Mintzalaguna-AEK-ko kideak.

Komunikabide orokorretan pixkanaka Euskaraldia zer den azaltzen ari badira ere, azkenean, herri bakoitzak bere errealitatera egokitu beharko du ariketa sozial erraldoi hau. Eta herrian egin ditugun lehenengo ekimenetan izan dugun erantzunarekin, lanean jarraitzeko ilusioz dihardugu Andoingo Euskaraldia batzordean.

Euskaraz aritzeko sentsibilizazioa, kanpaina esparru guztietan egin behar dugula jabetuta, kirola, kultura, ikastetxe, saltoki eta taberna, lantoki, aisialdi zein familian, eremu horietan Euskaraldiaren berri eman eta ekimenean parte hartzea animatzea izango dira hurrengo pausuak.

Herriko talde eta elkarteekin egingo diren bileraz gain, auzoetako jaiak ere Euskaraldiarekin bat egingo dute, eta irailetik aurrera, zenbait kultur eta kirol ekimenek egingo duten antzera. Beraz, adi egon eta beraietan parte hartzea animatu nahi zaituztegu. Izan ere, denon artean egingo baitugu Euskaraldia.

Agurrean hunkituta

Maddi Etxeberria, Garazi Jauregi, Malen Otxoa eta Rebeka Gestoso musikariek agur esan zioten elkarrekin egindako urtetako ibilbideari, joan zen ekainaren 28an Olagainen eskaini zuten emanaldiarekin



Maddi Etxeberria, Garazi Jauregi, Rebeka Gestoso eta Malen Otxoa Lorratzak taldeko kideak. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Dakiten bezala agur esan zuten, kantatuz. Eta horretarako etxe-koen eta jarraitzaileen babesarekin edukitu zuten Olagain musika eskolan eskaini zuten kontzertu berezian. Emozioz beterikoa izan zen. Beren uztako kantak euskal musikariren (Petti, Ordorika, Lertzundi...) kanten bertsoekin nahastu zituzten, entzuleek denbora askoan gogoan izango duten kontzertua osatuz.

Taldearen agurreko mezua, emanaldiaren biharamunean

"2013ko apirilaren 24tik, 2018ko ekainaren 28ra. Asko ikasi dugu taldearekin; asko elkarrengandik, asko bidean gurutzatu ditugun pertsona horiengandik. Pozik amaitu dugu; maitatuak sentitu gara. Agur kontzertuaren aurretik, azken orduko aldaketak medio, ez geunden eroso; urduri sentitzeaz gain. Publikoa sartzen ikusi genuen,

bihotzak bere tokitik irten behar zuela uste genuen; ez genuen inolaz ere hainbeste jende espero! Kontzertua zoragarria izan zen; musika sentitu genuen. Beraz, milesker, bide-lagun; Lorratzak taldearen existentzian zure hondar aletxoak jarri izanagatik.

Milesker, munduan den hondartza erraldoi honetan, gure lorratzak egiten lagundu diguzuenoi".

Jaietako eta udako bideo sorta zabala



Haur danborrada Sanjuanetan



Bertxin jubilatutako elkartearen ereserki berria



Soka dantza Kaletxikin

AIURRI.EUS

ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

KALETXIKIKO JAIAK 2018 ANDOAIN



Emanaldia amaituta, taldeko argazkia atera zuten. Musika joz Incansables txaranga. Eta danborra jotzen, auzuneko eta Andoaingo haur eta gazteak. Argazkian atera ez ziren haur gehiagok parte hartu zuen danborradan.

"Haurrek danborrada gustokoa dute"

XABIER ARTANO ONTZA ELKARTEKO DANBORRADA

Lehenengo esperientzia amaitu berri da. Zoritzarrez, euripean, baina ondo joan da. Bai, oso pozik gaude. Hogeita hamar ume inguru bildu ditugu. Umeek danborrada oso gogoko dute, eta beraientzat ere aukera txikia da festetan jo ahal izateko. Esperientzia oso polita izan da. **Erantzuna ikusita, iaz zer dela eta ez zenuten martxan**

jarri galdetu al diozue zuen buruari?

Haur danborrada osatzeko ideia buruan genuen azken urteetan. Aurten helduen danborrada 19:00etan hasten zela ikusita, aukera polita zen txikiek eta helduek elkarrekin pieza bat jotzeko. Beste alde batetik, umeentzat Andoaingo abestiak jotzeko eta ezagutzeko aukera

polita zen. Ea datozen urteetan ere posible den bide beretik jarraitzea.

Etokizuneko harrobia bertan dagoelako, ezta?

Ontzako danborradak urte asko daramatza martxan. Ikusi da jende gaztea prest dagoela danborra jotzeko, eta horrek lasaitasuna ematen digu.

Zuzendari lanetan aritu den gatzetxoak eta danbor-joleek serio jardun dute, gainera.

Bai-bai. Askok, gainera, San Juan jaiak ospatzetik datoz.





Kandido eta Txikitxoek kalejirarekin hasi ziren jaiak, ohi bezala, Kaletxikin. Manu Gorostegi izan da aurtengo Kandido. AIURRI

Auzo txiki, ospakizun handi

Jaien hasierako pregoian Manu Gorostegik igarle lan bikaina egin zuen, bete-betean asmatu zuelako: Festazaleak elkarrekiko errespetu giroan ibili dira eta Jai Batzordeko kideen lan handiari esker, festa bikainak izan dira. Auzo txikia izanik, jaia handia da



Manu Gorostegi 'Kandido'ren atzean hainbat dantzazale igande eguerdiko soka dantzan. Taula gainean, Andoaingo Olagain udal txistulari elkarte. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Olagain Udal txistulari elkarte-kideekin Goikoplazatik Kaletxikirako kalejira egin eta gero, hauxe izan zen bere adierazpena: "Urtebete pasa da gure lehenengo Kandidak agurra eman zuenetik. Geroztik, lan mordoa egon da, hor dauden fitxaje batzuen aldetik. Horiei esker asteburu ederra pasako dugu, baina batez ere, gure aldetik jarri behar dugu. Hortaz, badakigu zer eta nola jokatu behar dugun: Irribarrez, alaitasunez eta batez ere elkarrekiko errespetuarekin. Kontutan eduki behar dugu atzetik lan asko dagoela, eta lan hori eskerrezko modua denok elkarrekin gozatzea eta ondo pasatzea dela. Eskerrak eman Jai batzordeari, Txikitxoeri, Berrozpeko monjei eta azkenik, zuei etortzeagatik. Jaiak hasiko ditugu. Gora Kaletxiki! Gora Ama Kandida".

GORA ETA BEHERA



Musika ona, euskarazkoari tokia eginez

Musika etenik gabe entzun da Kaletxikiko jaietan, eta Bruno Mars eta puntako artisten musikaz gain, Itoizen klasikoak ere entzun ahal izan ziren. Kalitatezko musika, baita euskaraz ere.

Auzoko XXV. Sagardo txapelketa



Aurtengo sailkapena: Irigoien (1), Sarasola (2), Itsasburu (3). Irigoien eta Itsasbururen oroigarriak, sagardo dastaketan euren sagardoa zerbitzen aritu ziren Iñaki Irulegik eta Iñaki Lasak jaso zituzten.



Epaimahaikide taldea larunbat eguerdiko sagardo dastaketan.



Aurtengoan ere, eguraldia lagun, plazatxoa sagardoazalek bete zen.

Lantaldeari esker

Auzunetik abiatu eta inguruko baserri eta mendi bideetatik murgiltzen den lasterketa egin ahal izateko ezinbestekoa da laguntzaileen lana. Haiei esker atera zen aurrera



Laguntzaile taldearen lanari esker egin ahal izaten da Kaletxikiko mendi lasterketa. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Ez ziren mendi lasterkari ugari hurbildu, bai ordea mendizaleak. Gauzak horrela, igandekoa goiz pasa ederra izan zen kirolzaleentzat. Jaietako azken eguna ekitaldiz beterik izan zen. Arratsaldean, esaterako, Gorriti eta bere animaliekin txikiek eta gaztetxoek gozatu ederra hartu zuten. Sardin jatearekin eta Kandidoren agurrarekin amaitu ziren jaiak. Euria eragozpen bakarra bilakatuta, jai zapuzteko adina ez zen izan.




Askok mendi lasterketaren ibilbidea oinez egiteko aukera baliatzen dute. AIURRI



Ibai Alba, lehena. AIURRI



Irabazleak, Gurrutxaga, Ugalde eta Señorekin podiumean.



Lourdes Colomo, garailea. AIURRI

GORA ETA BEHERA



Lanean eta ospakizunean, umore onean

Lagun askori esker antolatzen dira Kaletxikiko jaiak. Ikustekoa da erakusten duten aldarre ona. Lanean eta ospakizunean, edo biak batera, umore ona erakutsi zuten. Bejondeizuela!

Emozio handiko arratsaldea



Errealaren kamiseta zeraman neska gogotsu eta ausart aritu zen. AIURRI



Arratsaldean, Gorritiren showaz gozatu ahal izan zen Kaletxikin. AIURRI



Haur eta gazteentzat ekitaldiak eta sardin jatea, igande arratsaldean. AIURRI

Hiru asteko egonaldia Sierra Nevada aldean

TXIRRINDULARITZA Mikel Iturria ziklistak etxetik urrun pasako du ia uztail osoa. Larunbatean Sierra Nevada Errendimendu Goreneko Zentrora joango da, Granadara. Espainiako Vuelta jomugan du

Andoni Urbistondo URNIETA

Lehen astean taldekiderik gabe egongo da, baina hurrengo biak, Euskadi-Murias taldeko beste sei kiderekin batera. Uztailaren 26ra arte egongo da han Iturria, 2.300 metrora, altuerako prestakuntza egiten, inguruko bailara eta mendietan lan saio gogorrak osatzen. Bai taldeak, bai Iturriak, Espainiako Vuelta dute begiz jota. Abuztuaren 25ean hasiko da urteko azken itzuli handia, Malagan, eta Jon Odriozolaren taldearentzat erakusleihu ezin hobea da Vuelta, tropelean indartsu jarraitzeko. Vuelta baino lehen, Donostiako Klasikoa eta Burgosko Itzulia korrituko litzuzke Iturriak (abuztuak 4, eta abuztuak 7 eta 11 artean).

Vuelta jomugan

Taldeak ez du baieztatu oraindik zein izango den Vuelta korrituko duen zortzikoa, baina pentsatzekoa da Sierra Nevada ariko direnek osatuko dutela



Mikel Iturria Euskadi-Murias taldeko kidea, aurtengo Apeninoen Tourrean. AIURRI

bizkarrezurra. Iturria bera gogotsu dago Sierra Nevada joateko eta bere sasoi puntu ona fintzeko. Route d'Occitanie, Hegoaldeko Itzulia zena izan zen korritu zuen azken proba. 19. postuan sailkatu zen nagusian,

eta azken etapan eguneko ihesaldian sartu zen. Bere burua ondo ikusten du urnietarrak, iazko lesioa ahaztuta jada, eta bere ibilbidean lehen aldiz itzuli handi bat korritzea zer den ezagutzeko irrikan dago.



ANDONII URBISTONDO

Leuneta txirrinduzaleen omenaldia eta protesta

TXIRRINDULARITZA Igande eguerdian Leunetako kideak Hernanitik abiatu ziren, Leon aldean gidari batek hil zituen Agirre-Carrasco senar-emaztearen alde eta haren semearekin elkartasunez. Carrasco

tropelkide zuten, eta Urnietatik igarotzean hainbat lagunengana jaso zituzten. Andoain-Villabona zeharkatu ondoren, Tolosara iritsi ziren, Oriako taldeak deitu zuen bizikleta martxan parte hartzeko.



Datorren ikasturtean parte hartzeko uztailan eman behar da izena. BURUNTZALDEA IKT

Buruntzaldea IKT taldean izen-ematea zabalik dago

IGERIKETA 2018-2019rako eskola igeriketan eta federatu mailan epea zabalik dago, uztailaren 27ra arte

Erredakzioa ANDOAIN

Denboraldia irailaren 10eko astean hasiko da. Andoaingo kasuan, 2010. urtean jaiotakoak izango dira Allurralde kiroldegiko igerilekuan entrenatzeko izena eman dezaketen gazteenak. Entrenamenduak burutuko diren herria eta adin tartearen baitan, ordutegiak eta egutegiak desberdinak dira.

Kuotak modu progresiboan egokitzen dira, ikasleak entrenamenduetan hasten direneko hilabetearan arabera. Buruntzaldea IKT taldean bi, hiru edo familiakide gehiago dituztenek

hobariak dituzte. Diru kontuei buruzko xehetasun guztiak webgunean eskuragarri ipini dituzte.

Informazio gehiago

Klubaren webgunean, info@buruntzaldeaikt.eus posta elektronikokoan edo 696 506 632 telefono zenbakian.

Benjamin mailako igerilariak izan daitezke Buruntzaldea IKT taldeko kideak. Eta hortik aurrera, nagusien mailara iritsi bitarteko maila guztiak. Hots, alebin, infantil, junior eta helduen maila.

Tourra Tourmalet mendi gainera ikusteko aukera

TXIRRINDULARITZA Urnietako Kantoi tabernak irteera antolatu du uztailaren 26 eta 27rako

Erredakzioa ANDOAIN

Frantziako Tourra hastear da eta Urnietako Kantoi tabernakoek datozen uztailaren 26-27 egunetarako irteera antolatu dute. Txirrindulariak Tourmaletetik pasatzen ikusteko asmoa dute. Plana labur azalduta, honakoa da: Uztailaren 26an kiroldegitik irtengo dira, eguerdiko 12:00tan. Uztailaren 27ko etapa amaituta itzuliko dira. Izen-ematea zabalik dago. Prezioa: 55 euro. Busa bete arte, izena emateko aukera zabalik izango da.



Delgadok 1988ko Tourra irabazi zuen.

Andoni Urbistondo URNIETA

Podiumeko koska garaienera itzuli da hiru haur erditu, hazi eta hezi bitartean, irakasle izateko oposaketa gaindituta, eta Jokin Lizeaga bikotea heriotzaren atarian jarri zuen istripu gogorra bizkar gain hartuta. Onddi eta Mulisko aldeko para-jeetan gainditu du herioa, izerditan blai, gorputza estutuz, ideiak ordenatuz, askatasuna dastatuz. Mendi lasterketetan bizitzako egunerokoan lortutako mugarrak errepikatzen direla sinetsita baitago Ainhoa. Ez alferrik, elkarriketa Besabi eta Onddi arteko bidean dago egina.

Garaipen bat etorri da orain, Ainhoa, baino betidanik izan duzu harreman zuzena kirolarekin, eta mendiko korrikarekin.

Bai. Txikitik aita eta amarekin, karabanarekin hara eta hona ibiltzen ginen, Tourrera edo mendira, eta hondartzan pala, pilota, mendia... Eskola kirolean atletismoa egin nuen, eskubaloia gero urte luzez, gorputz heziketa ikasteko arra sartu zitzaidan arte. Eskubaloia utzi behar izan nuen, ikasketak Gasteizen zirelako (4 urte), eta beste bat Ingalaterran. 4 urte horietan aretoko jardueretan (spinning-a, tonifikazioa, aerobic eta gimnasioa) irakasle aritu nintzen ikasketekin batera, horregatik utzi nuen eskubaloia. Ikasketak bukatuta, irakaskuntzan hasi nintzen, Erronkarin (Nafarroa). Denbora libre dezente neukan, eta mendian korrika egiten hasi nintzen. Ordurako Mikel Legarreta urnietarra mendian korrika zebilen, eta Urnieta-Adarra-Urnieta lasterketa zegoenez, 2007ko apirilean korritu nuen lehen aldiz. Niretzat harrigarria zen nolatan korrikariak halako proba bat osatzen zuten. Ondoren nik ere egin nuen, eta ez zitzaidan hainbesterako iruditu, ez nuelako azkena bukatu. Hor hasi zen nire mendiko korrikalari istorioa. Gero, pixkanaka, Pirinioetan eta Euskal Herrian lehiatzen hasi ginen, ni eta Jokin Lizeaga bikotea, eta horrelaxe.

Kirola eta amatasuna, urteak elkar gurutzatuta zure bizitzan...

Bai. 2009ko uda eta udazkenean lasterketa batzuk korritu nituen, emaitza onekin, eta Euskal Selektzioako kide bilakatu nintzen. 2010eko Urnieta-Adarra-Urnieta lasterketan oso denbora ona egin nuen (1:17:00). Eta serio entrenatu gabe! Baina Lide lehen



Ainhoa Jauregi Onddiko tontorrean. Paraje horietan bilatzen du pakea, bere buruarekin hausnartzeko. ANDONI URBISTONDO

“Bizitza bera pausoz pauso osatzen den lasterketa da”

AINHOA JAUREGI MENDI KORRIKALARIA ETA DBH-KO IRAKASLEA

Garaipenik lortu gabe ere merezi zuen elkarriketa Jauregi korrikalariak (Urnieta, 38 urte), baina Arbizuko mendiko lasterketan lortu zuen txapelak azkartu egin du prozesua

haurra bidean zegoen, ordurako. Ama izan nahi nuen, eta mendiko maratoian koska bat gora egin ere bai, batez ere nire muga zein zen jakiteko asmoz. Bi nahiek talka egin zuten, eta malko batzuk bota nituen biak bateragarri ez zirelako. Egun batean nire buruarekin hausnartu nuen, eta erabaki: mendiko korrikalari izatea jolasa zen, zaletasuna, eta ama

izatea bizitza osorako proiektua. Lide jaio ondoren bueltatuko nintzela agindu nion nire buruari.

Haurdunaldia eta erditzearekin espero ez zenituen faktore asko sortu ziren...

Ikaragarria! Suposatzen duen ahalegin fisikoaz gain, gorputza aldatzen zaizu, batean kiloak hartu, hurrena galdu, ondoren

desoreka bat edo beste... Ez zara haurra eduki aurreko zinen emakume bera.

Baina bueltatu zinen, eta nola!

Motibazio sendo bat neukan: gizonezkoek aita izan ondoren korrika jarraitzen badute, nik zergatik ez? Uda horretan, Lidek 6-8 hilabete zituela, Suitza eta Italiako Alpeetara joan ginen bikotea eta hirurok.

Haurra ostaturako arduradunekin zuzena, edo konfiantza ematen zigun beste norbaitekin. Munduko Kopako proba batzuk osatu nituen, 9. postuan sailkatu nintzen sailkapen nagusian, lauzpabost proba korrituta, eta horrek nahiko lasterketa txukunak egin nituela esan nahi du. 6 hilabeteko ume on eta baita ama on batekin! [barrez]

Gorputzak, ordea, kito esan zizun.

Nola gainera... Tiroidean arazoak izan nituen, haurdunaldiak sorturiko hormona-dantzaren ondorioz, lasterketetan ezinean nenbilen. Egun, pastillekin-eta, oreka daukat, baina bizitza osorako hor egongo den egoera bat da. Nire burua ezagutzeko baliagarria izan zen. Bosgarren kilometroan aldapa bat ezin nuela atera ikusten nuen, ez nuela lasterketak bukatzeko gaitasunik! Eta ondoren jakin nuen zergatik zen.

Eta familia handitu zen!

Bai. Tiroidearen arazoa medio, bi aborturen ondoren, Negu etorri zen, eta hor oso gordin nabaritu nuen amatasuna eta kirola partekatze nahia. Teorian bateragarri dira, baina bi umeekin logistika konplikatu egiten da, zer esanik ez bikoteko bi kideak korrikalariak baldin bagara. Kirol arloa baztertzeko joan nintzen pixkanaka, eta amatasuna lehenetsi. Familia uharia eduki nahi genuela ere nahiko garbi geneukan nik eta Jokinek, eta egoera horren baitan, amatasuna nagusitu zen. Korrika munduan sartuta jarraitu nuen, baina Jokin bera ere bete-betean sartuta zegoelako.

Bakarren batek pentsatuko du, biok zaletasun bera eduki, hiru haur zaindu behar, bikotea bere istripu-tik osatu eta entrenatzen hasteak tarte apur hori ken diezazukeela...

Justu kontrakoa. Gurean, nik edo Jokinek korrika egiten badugu, pozik gaude. Gure ondokoa korrika ikusteak ez digu ardura hori sortzen, kontrakoa, poza ematen digu. Biok, gure mugekin, korrika egin ahal izatea litzateke gure nahia. Jendeak esaten dit: ‘Jokin laster prest da’. Eta niri horrek poza emango lidake. Ni orain korrika ari naiz, eta asko lagundu eta animatzen nau, espero ez dudana tokian semea eta alabekin azalduz. Jokinek berriro mendian korrika egitea nahi dut. Seinale ona izango da.

Erditze eta erditze artean, kirola erabat ez zenuela bazterrean utziko



Zorroztarrin, Zanpatuz mendi taldeko kamisetarekin. Bere bizipenak partekatu zale da, Whatsapp talde horretan.

pentsatzen dut, berriro hastea askoz nekosoagoa delako...

Ez dut kirola erabat utzi, ez. Lasterketak korritzen-eta jarraitu dut, emaitzari batera garrantzirik eman gabe. Mendi buelta pare bat eman, besterik ez, baina beti zerbait egin, fisikoki aktibo egotea gustuko dudalako eta psikologikoki momentu horiek izatea asko baloratzen dudalako. Nire buruarekin solasaldiak izateko unerik aproposena izaten dira, batzuetan 30 minutuko asfaltoko buelta, edo bestetan

gehienez ordu eta erdiko mendi buelta. Ideia guztiak kajoietan antolatze momentua izaten da, nire buruarekin egoteko momentua. Modu honetan, gorputzak ez du ahaztu sufrimendua zer den, prest segitzen du. Medikuek eta esan zidaten, tiroideetako arazo hori dela-eta, ez nuela ama izan aurretik neukan maila fisikoa berreskuratuko. Baina egoskorra naiz, eta pixkanaka sasoi puntu ona lortzen joan naiz. Hortik etorri da Arbizuko garaipena.

Ze hausnarketa egiten duzu amatasunaz eta kirolaz?

Sarri haserre egon izan naiz 'nahi baduzu, egin dezakezu' lelo entzutetsu horrekin, ez baita erretza: erditu, bularra eman, hezi, beste ume bat... Lor daiteke? Bai, baina konplikatu da, eta emakumeok asko borrokatu behar dugun zerbait da! Ni orain eszedentzian nago, bikoteak egiten du lana, haurren heziketa garrantzitsua zela erabaki genuelako. Horrek tartea uzten digu asteburuetan-eta mendira joate-

ko. Gure zaletasun garrantzitsuena bizirik mantentzen saiatu gara, eta horri esker, familia eta zaletasuna partekatzea lortzen dugu. Neguan, esate baterako, iraupen eskia egiten dugu umeekin, eta horrelako gauzek asko betetzen gaituzte.

Arbizuko probako azken 5 kilometroak, pistan barrena korrika, berezi samarrak izan omen ziren. Zergatik?

Ordu eta erdiko lan saioak egiten ari nintzen gehienez, eta Arbizun 2.13 egin nuen! Azken 30-40 minutu horiek, eta pista batean korrika... ederki sufritu nuen. Jende askorekin gogoratuz samurragoa egin zitzaidan: etxe-koak, emaginak, erditze osteko fisio espezialistak, lagunak, Urrietako mendi korrikalariok daukagun whatsapp taldeak ematen dizun poxa... Bizitzako lorpenak asko biderkatzen dira lagun eta familiarekin konpartitzen direnean.

Kirol lorpenek ezinbestean gizakien ego-a handitzea dakarte, auto estimua handitzea eta beste. Zuri halakorik gertatzeko beldurrik ba al duzu?

Ezetz espero dut. Arbizuko garaipenak pixka bat gehiago estutzeko motibazioa eman dit, saioaren bat gehiago egiteko, asteen bi izozki gutxiago jateko, entrenamenduetan azkarreago ibiltzen saiatzeko, besterik ez. Proba bat korritu edo ez, ez dago nire ego-aren baitan, umeak nork zaindu bilatu edo ez baizik. Hiru umeak zaintzeko norbait bilatzen ez badut, ez dut korrituko. Kito. Hiruzpalau hilabete pasa dira zure bikoteak istripu larria izan zuenetik... zertan dira oroitzapenak, oharkabean azaltzen diren lesioak, buruko min ikusezin horiek...

Istripu eguna latza izan zen, zain egon behar hori, aterako ote zen edo ez... Jokin erietxean hitz egiteko eta mugitzeko gai zela jakitea oparia izan zen niretzat... Ondorio askoz larriagoak izan zitzakeen. Errekuperazioa ondo doa, baina beti egiten zaizu luzea. Lehen ez zituen minak azaltzen ari dira, lo falta ez da desagertu... denbora behar da, osatzeko. Mendi lasterketetara bueltatuko da,

"GARAIPENAK PISKA BAT GEHIAGO ESTUTZEKO MOTIBAZIOA EMAN DIT"

buruz eta sasoi oso indartsua delako. Nik uste dut maila polita hartzea lortuko duela berriz, baina noiz ez dakigu.

Arbizun irabazita, nola ikusten zara mendi proben arloan urtebete barru?

Etxe inguruan eta 25 km arteko probak korritzen, ahal den neurrian. Etxetik ordu erdira nahi beste lasterketa edukita ez dut nire burua Espainiako edo Munduko Kopako lasterketak egiten ikusten. Prestatzen jarraitzen badut, agian 2019ko Zegama egiten saiatu naiteke, baina gaur-gaurkoz 42 kilometroko proba bat osatu ahal izatea utopia iruditzen zait. Erroren bat edukitzeak laguntzen dit gorputza zuzentzen, dortsal bat jantzita oso lehiakorra bihurtzen naiz, eta lehiakortasun hori akuilu da mendira bueltatu eta gozatzeko. Bizitza bera mendi lasterketa baten parekoa izan dela iruditzen zait: unibertsitateko sarbide proba gaintu, ama izan, oposaketa bat prestatu..., lortzen zailak ziruditen mugarrak lortu ditut, eta mendi lasterketak deskubritzea altxor bat izan da niretzat, bizitza beraren ispilua.

Lanbidearen inguruan ere zer egin erabaki beharko duzu...

Aldaketarik ez bada (Gorputz Heziketako Irakaslea da Altsasun), hurrengo ikasturtean ere eszedentzian jarraituko dut, gure energiak gustuko ditugun jardueretan zentratzeko aukera emango baitigu horrek. Eta bi ikasturte barru oso gustura itzuliko naiz nire lanpostura, ahal bada etxetik gertuago.

Lide 8 urterako bidean da, dagoneko, txikiak zirenak hazten ari dira. Zer esan zizuten Arbizun irabazi ostean?

Azken urteetan korrika aitarekin bakarrik lotzen zuten: korrika, aita, garaipena. Arbizun irabazita, beraiek ere konturatu dira, ama, ama izanda ere, lehiatu eta garaipena lor dezakeela, edo garaipena lortu gabe ere lasterketez asko gozatu daitekeela, emakumeek zaletasunak ditugula eta kirola egitea gustuko dugula. Nire seme-alabek balore batzuekin hezi nahi baditut lehen adibidea nik izan beharko dut. Emakumeek gure hobby-ak mantentzea funtsezkoa da, baita amatasunaren garaian ere. Niri Jokin laguntza handia ematen dit, ez daukat kexarik, baina orokorrean berdintasun efektibora iristeko asko falta zaigu oraindik!

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 5

URNIETA Kirola

Donosti Cup txapelketaren 27. edizioa ospatzen ari dira egun hauetan uztailaren 7ra bitarte.

10:00, Urnietako futbol zelaian.

URNIETA Kirola

Paintball saioa 2002-2003 artean jaiotakoentzat, Gaztelekuaren bitartez.

15:00-20:30.

OSTIRALA 6

URNIETA Lehiaketa

Sanmielak iragartzeko kartel lehiaketa. Lanak uztailaren 6ra arte aurkeztu ahal izango dira. Saria bakarra izango da, 450 eurokoa.

07:30, 14:30, Bertan.

URNIETA Irteera

Egun pasa Santa Klara irlara Gaztelekuko kideekin.

10:00-18:00.

ANDOAIN Zinema kalean

"Guardianes de la galaxia".

22:00, Bazkardoko frontoia.

LARUNBATA 7

ANDOAIN Tai Chi-Qi Gong

Nagore Orbeltzuk Tai Chi-Qi Gong tailerra eskainiko du. Izen-ematea: info@leitzaran-andoain.eus edo 943 300 929. Prezioa: 25 euro.

10:30-13:30,
Leitzaran Bisitarien Etxea.



'Guardianes de la galaxia' eskainiko dute ostiral gauean, Bazkardon.

ANDOAIN Zinema kalean, Bazkardoko frontoian

Andoingo Gazte Lokalak hartuko du uztailaren zinema herrian eskaintzeko ardura. Kalean eskainiko dute, gainera, uda giroko eguraldi beroaz baliatuta. Marvel faktoriaren film ezagun bat izango da uztailaren lehen emanaldia.

Uztailak 6, ostirala. 22:00, Bazkardoko frontoia.

ASTELEHENA 9

ANDOAIN 3x3 Saski lehiaketa

Andoingo Gaztelekuaren eskutik, lagunarteko txapelketa berria.

Gazteleku.

ASTEARTEA 10

URNIETA Kirola

Kinball-ean jolasten igaroko dute goiza Gaztelekuko lagunek.

11:00-13:00.

ASTEAZKENA 11

URNIETA Irteera

Lizarrako kanpinera irteera, Gaztelekuaren eskutik.

09:00.


OSTEGUNA 12

ANDOAIN Zinema kalean

Batman Lego, udako bigarren filma.

Sinopsia, alboko zutabea.
22:00, Zumea plaza.

ZINEMA



ANDOAIN

ZINEMA KALEAN

Guardianes de la Galaxia

Ostirala, 6: 22:00. Bazkardoko frontoia.

Batman Lego

Osteguna, 12:

22:00. Zumea plaza. Euskaraz.

Piratas del Caribe: La venganza de Salazar


Ostirala, 20: 22:00. Goikoplazako frontoia.



SINOPSIA

Batman Lego

Zuz.: Chris McKay. Herr.: Estatu Batuak (2017). Iraupena: 104 minutu. Hizkuntza: Euskara.



Hiria gaiztoetatik zaindu

Gothan izeneko hiria maltzurrengandik zaintzea da Batman-en zeregina. Joker maltzurak pentsatutako planaren ondorioz, hiria aldatzen ari da.

Batman kontziente da aurrean duen erronka handia dela, eta ezin diola bakarrik aurre egin. Laguntza behar du. Jende gehiagorekin lan egiten ikasi beharko du, eta horien artean aurkitzen da Dick

Grayson, adoptatu berri duen umezurtz gaztea.

Bizitza berri horretan ez da bakarrik egongo. Barbara Gordon-etaz maiteminduko da, Batgirl gisa ezagutuko dena. Bien artean zainduko dute Dick Grayson.

"La Lego" pelikula izandako arrakastaren ondorioz sortu da "Batman Lego"; Batman filmean oinarriturik egindako filma da.

Egunean eguneko albisteak sarean



Lorrazak taldearen agurra



Kaletxikiko jaiak



Bizikleta martxa Urnietan barrena

AIURRI.EUS

ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA



AZOKA

SALMENTA

Egoera eta prezio onean neurri ezberdinetan ipintzen den trona, umea eramateko mendiko motxila eta txirrindarako eserlekua: 690 218 958.

lagunentzako, bi logela, sukaldea, komuna, dutxa... Soustonseko lakuan dago, eta kanpinak denetatik du, igerilekua, tobogana. Informazio gehiago: 658 720 735.

ALOKAIRUA

Mobilhomea alokatzen da Azur-eko kanpin familiar batean (Landak) 4

IRAGAR ZAITEZ

Iragarki txikiak, dohainik. diseinua@aiurri.eus

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 7 eta igandea 8
ANSA: Ondarreta, 8.
943 591 302. Andoain.

URNIETA

Larunbata 7 eta igandea 8
ETXEBARRIA: Andre kalea, 48.
943 551 793. Hernani.
Gaez, bi herrietan: Castilla.
943 552 941. Hernani.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Liher eta Jare
Liherrek uztailaren 5ean 7 urte bete zituen, eta Jarek 9an 4 urte. Ondo pasa eta muxu pottolo bat familia guztiaren partetik.



ANDOAIN
Nere
Bat, bi eta... 3! Nerek 3 urte beteko ditu uztailaren 10ean. Azkenean iritsi da eguna! Muxu handi bat etxekeoren partetik.



ANDOAIN
Aiara
Gure etxeko printzesak 7 urte beteko ditu San Inazio bezperan. Aimar, aitaxo eta amatxoren partetik. Asko maite zaitugu!



ANDOAIN
Xabier
Aitaxok urteak beteko ditu uztailaren 10ean. Muxu handi bana Aiara, Aimar eta amatxoren partetik!

Urte askotarako!

diseinua@aiurri.eus
Mezua bidali Aiurriko posta elektronikora.
Arantzibia 4-5, behea
Etor zaitez bulegora.
Tel.: 943 300 732.
Whatsappez:
619 16 35 37

"Bertatik bertara"

Horixe da Salkin Andoaingo merkatarik elkartearen lelo berria, logotipo berriarekin aurkeztu berri dutena. Naiara Lasarte eta Juanan Lazkano izan dira diseinatzaileak eta, ondorioz, lehiaketa irabazi dutenak. Astearte eguerdian Espigoian egin zuten aurkezpen ekitaldia Salkineko ordezkariak, behin behineko alkate Jon Zuluetak eta Naiara Lasarte diseinatzaileetakoak.



Ortzadarraren koloreak

LGBTB+ kolektiboaren nazioarteko egunaren harira, Kale Nagusiko zebra-bidea ortzadarraren koloreekin margotu zuten andoaindarrek. Udal adierazpena onartu du Udalak, besteak beste, "aniztasun sexualaren aldeko eta orientazio sexualaren edo genero identitatearen arabera pertsonak ez diskriminatzeko politiketan apustu egiteko beharra" adieraziz.



ESKELA

Antselmo LARRARTE ROTETA jauna

Ohorezko Aiurri saria (2010)

Larraulen hil da, uztailaren 1ean, 86 urte zituela



Zeru eta muino berrien bila ote zatzaizkigu urrundu?
Gizon jantzia, maitagarria, zu beti besteen esku;
zure gogoia gureganaino zabaltzeko aiurritz gertu.
Roteta eta Larrarte zinen, ezin bihotza erdibanatu;
zure itzalaz iparra non den erraz asmatuko dugu.



Mila esker, agur eta ohore, Antselmo!
Beterri, 2018, uztailaren 3an. Manuel Larramendi Kultur Bazkuna

ESKELA

Antselmo Larrarte Roteta

Ohorezko Aiurri saria (2010)

Larraulen hil da, uztailaren 1ean, 86 urte zituela



Aiurri hamaboskariko kolaboratzaile fina.
Ez zaitugu ahaztuko, gugan bego Antselmo!



AIURRIKO LANTALDEA
Andoain, 2018ko uztailaren 4ean

ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732 edo publizitatea@aiurri.eus

- Hileta eguneko eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ /
- Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ

Eskelak Aiurriin: 90 euro



Andoni Urbistondo urnietarra.

Frantziako Tourra Urbistondoren eskutik

Aiurri.eus webgunean eta @aiurri twitter kontuan etapa bakoitzaren osteko analisia egingo du Andoni Urbistondo kazetariak. Saskibaloian aditua, txirrinduzale amorratua da. Udako kirol hitzordurik ezagunena internet bidez jarraitu ahal izango da, Aiurriren bitartez.

Urrakako igogailua martxan ipini dute aste honetan

Dagoeneko zabalik dago igogailua, adineko jendearen eta haur txikiak dituzten familien mesederako. Urnietako alkate Mikel Pagola pozarren agertu zen: "Igogailua herritar guztientzat izango da onuragarria, baina bereziki adineko jendearentzat eta mugikortasun urriko pertsonentzat, izan ere, orain askoz modu azkar, erraz eta erosoago batean irits daitezke herriko erdigunera. Igogailuak azterketa tekniko guztiak gainditu ditu, primeran funtzionatzen du eta oso pozik gaude herritarrei zerbitzu hau eskaintzeaz".

Sahara aldeko haur bana Andoainen eta Urnietan, uda honetan

Azken urteetako joerari eutsiz, Betteri-Buruntzako hainbat bizilagunek eta Udal erakundeek Saharako haurrak eskualdean hartzeko pausoa eman dute. Bi hilabetez osasun azterketak eskainiko dizkiete, desertuko bero handitik urrunduz. Uda honetan Sahara aldeko haur bana izango da Andoainen eta Urnietan.

AZKENA



Bertxin elkarteko kideak, Joxe Mari Oartzabalen eskutik ereserkiaren partiturak jaso ostean. AIURRI

Bertxin elkartearen ereserkia, lau haizetara

Bederatzirehun bazkide inguru dituen Bertxin jubilatuta eta pentsionisten elkarteak badu ereserkia, joan zen igandean geroztik. Kaletxikiko jaietan estreinatuta zuten Gora Kaletxiki Bandak jendaurrean, elkarteko ordezkariak bertan zirela

Erredakzioa ANDOAIN

Kanta interpretatzeko orduan, Bandak Andoaingo elkarte ezberdinetako danbor joleen laguntza eduki zuen. Ondoren, Joxe Mari Oartzabalek Bertxin elkarteko zuzendaritza batzordeko kideei partiturak eman zizkien, Kaletxikin bildu ziren ikusleen txaloak jasoz.

"Bertxin elkarte/ zahartzarorako gorderik / dugun txoko ederra / Bertxin Elkarte! / Besteekin partekatuzko / bizitza honen pozak / Bertxin Elkarte! / Hutsuneak uxatzeko / aitzakia guztiz polita / Bertxin Elkarte! / Andoaingo elkarerik handiena!". Hitzak apagarri bilakatu dira ereserki berrian.

Letra Berrondorena, musika Oartzabalena

Joxe Ramon Berrondok idatzi du letra, eta musika Joxe Mari Oartzabalena da. Doinuari dagokionez, Oartzabalek berak adierazi zuen zertan inspiratuta den: "Andoaingo musikaren historian tradizio handikoak izan diren Pepe Andoain, Eulo-

gio Saldias, gure aita (Joxe Mari Oartzabal) eta antzekoen estiloaz baliatu naiz. Biribilketa bat da azken batean, kalean jotzeko, jendea dantzan jartzeko..., Hiru parte ditu, elkartearen ezaugarriak kontuan hartuta; lehenengoan, alaitasun puntu bat itsatsi diot; bigarrengoak, berriz, tristura kutsua dario, bizitzako azken urteetan sentimendu hori ere presente egoten delako. Azkenik, hirugarren zatiak, berriro ere poza transmititu nahi du".

Berrondok, ereserkiaren letraren muina deskribatu zuen: "Jubilatuaren elkarte, giza harremanetan sakontzeko eta barkatasunak uxatzeko gune egokia izaten da urtetan aurrera doazen pertsonentzat, eta ideia hori da nagusi letran".

Zordun Bertxin elkartearekin

Aldi berean, kanta sortu izanaren zergatia azaldu zuen Berrondok igandean: "Gora Kaletxiki Banda zordun sentitzen zen Bertxinekin, eta horixe izan da motiboa. Izan ere, "Andoaingo sorreraren 400. urteurrenerako prestatu zen diskoan, Bertxin izan zen ereserki gabe geratu zen elkarte bakarra".

Zer esanik ez dago Bertxin elkarteko kideentzat egun berezi-berezia izan zela igandekoa. Harrotasunez jaso zuten oparia. Adierazi zuten, ereserkia ahal duten guztietan zabaltzen saiatuko dira, bai elkarteko 900 bazkideen artean eta baita ere urtean zehar antolatu ohi dituzten makina bat ekitalditan.

Bideoa ikusgai dago Aiurri.eus webgunean, baita Aiurriko Youtubeko kanalean ere.



Zenbait elkartetako danbor joleek ere parte hartu zuten aurkezpenean. AIURRI



Joxe Mari Oartzabal, Gora Kaletxiki Banda zuzentzen. AIURRI